Zenbait kontzeptu argitzen...

SEXISMOA

Sexu bat beste sexuaren gainetik dagoela legitimatzen duen sinismen, jarrera eta portaera multzoa. Honen bidez, sexu bat diskriminatzen da.


HIZKERA-SEXISTA


Emakumezkoak gutxietsi, ezkutatu, mespretxatu edo iraintzen dituen hizkera.

ANDROZENTRISMOA

Gizona diskurtsoaren zentrotzat, ardaztzat, erreferentziatzat edo neurritzat hartzeari esaten zaio; gizonak onetsiak dira etengabe eta emakumeen ikuskera, aldiz, doi-doi agertzen da.

Ikusmira honetan, gizonaren begirada kokatzen da unibertsoaren erdigunean, gizona da gauza guztien neurria, eta neurri horren arabera irudikatzen da mundua.






http://www.ehu.eus/e-makumeak/docs/eusk_gida_eu.pdf

"GIZONA": ERABILERA ESPEZIFIKOA



Gizona kobazuloetan bizi zen Paleolito garaian.

Nori egiten dio erreferentzia?



Gizon-emakumeak kobazuloetan bizi ziren Paleolito garaian.

Pertsonak kobazuloetan bizi ziren Paleolito garaian.

GENEROA DAUKATEN IZENEN PLURALA EDO GENERIKOA

Zure **osabak** etorri dira.

Zure **aitek** baimena eman al dizute?

Guztiok gara euskaldun, guztiok **anaiak** gara.


Errege katolikoen konkista.

Zure **aitonek** oparitu al dizute hori?

Nori egiten diete erreferentzia?

GENEROA DAUKATEN IZENEN PLURALA EDO GENERIKOA





Zure **osabak** etorri dira.	Osaba-izebak
Zure **aitek** baimena eman al dizute?	Gurasoek / aita-amek
Guztiok gara euskaldun, guztiok **anaiak** gara.	Neba-arrebak
Errege katolikoen konkista.	Errege-erregina
Zure **aitonek** oparitu al dizute hori?	Aitona-amonek

Nori egiten diete erreferentzia?

GENERORIK GABEKO IZENAK

1) Erizaina, idazkaria, jostuna, haur-zaina, telefonista, sare-konpontzailea, garbitzailea, emagina...

2) Suhiltzailea, iturgina, zurgina, igeltseroa, urpekaria, ugazaba, artzaina, abeltzaina...

Zer irudikatu duzu multzo bakoitzean?

Generoa adierazi nahi badugu, ***zehaztu****:*

andre edo emakume euskaltzainak, jaun edo gizon euskaltzainak; andre edo emakume zuzendariak, gizon edo jaun zuzendariak; neska urpekariak, mutil urpekariak...

ASIMETRIA LEXIKOAN


Gizalege (begirunea)	Emalege (hilekoa)
Gizabakar (norbanakoa)	Emabakar (monogamoa)
Gizatxar (gaiztoa)	Ematxar (prostituta)
Gizontasun	Emetasun
Agurea (adineko gizona)	Atsoa (emakume zaharra, gutxiespeneko zentzua)
Potroak/Barrabilak eduki	---
Gizona izan (ausarta)	*Emakumea izan* (berritsu, txepel...)
---	Andereño
Plazagizon	---

JAUZI SEMANTIKOA

Bertsolariak, ona izango bada, plazagizon ere izan beharko du.



Nori egiten die erreferentzia?



Bertsolariak, ona izango bada, plazagizon edo plazandre ere izan beharko du.

JAUZI SEMANTIKOA



"BESTE LURRALDEETAKO OHITURAK" mikroipuina

Aloba tribuko **indioak** itsuak dira, salbuespenik gabe, baino oso lagunkoi eta abegikorrak. **Bere** etxera gonbidatzen zaituztenean **beren anderea** eskaintzen dizuete eta, gainera, eurek atontzen dizute ohea. Baina zera: anderea gustatzen ez bazaizu, eta onartzen ez baduzu, berehala ebakiko dizute zintzurra, gaizki zorrozturiko sukarri batez.



"BESTE LURRALDEETAKO OHITURAK" mikroipuina

Aloba tribuko **indioak** itsuak dira, salbuespenik gabe, baino oso lagunkoi eta abegikorrak. **Gizonek bere** etxera gonbidatzen zaituztenean **beren anderea** eskaintzen dizuete eta, gainera, eurek atontzen dizute ohea. Baina zera: anderea gustatzen ez bazaizu, eta onartzen ez baduzu, berehala ebakiko dizute zintzurra, gaizki zorrozturiko sukarri batez.

ANDROZENTRISMOA



Frantziako iraultzaren ondorioz **sufragio unibertsala** ezarri zen.

Atenastarrek bozketaren bidez aukeratzen zituzten ordezkoak.

Nori egiten die erreferentzia?




*Frantziar iraultzaren ondorioz **gizon guztientzako sufragioa** ezarri zen.*

Gizon atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten ordezkoak, **horiek ere gizonak.

ANDROZENTRISMOA

Anai-arrebak



Zein da abiapuntua?
Nork dauzkate "anaiak" eta "arrebak", emakumezkoek ala gizonezkoek?

Neba-ahizpak ?

Arreba-anaiak ?
Ahizpa-nebak ?

ASIMETRIA MEZUETAN


Angelina Jolie-k, **beti bezain eder eta elegante**, eta Robert de Niro aktore errekonozituak sari bana jaso zuten ekitaldian.



Asimetriarik ikusten al duzue?

Robert de Niro-k, **beti bezain eder eta elegante**, eta Angelina Jolie aktore errekonozituak sari bana jaso zuten ekitaldian. (?)

Orain?



Angelina Jolie eta Robert de Niro aktore ***errekonozituek*** *sari bana jaso zituzten ekitaldian.*

ASIMETRIA MEZUETAN

Emakumezkoen boleibol partida bati buruzko albistearen izenburua da hau:

"Gorputz ederrak hondartzan"

Gizonezkoena izan balitz?

ATSOTITZAK edo ESAERA ZAHARRAK

"Ahuntza, atsoa eta emakumea, teman ez ditu inork irabaziko".

"Ahuntzak jaten duen mahastia eta andreak agintzen duen etxea, antzeko"

"Alaba baino, semea hobe"

"Alaba bakarra, etxean gerra".

EMAKUMEEN AIPAMEN ASIMETRIKOAK

Emakumeak gizonekin duten harremanaren arabera aurkeztea (emazteak, andregaiak, alabak, idazkariak...):

- *Hegazkinean* ***bi andaluziar eta beren emazteak*** *ezagutu genituen.*
  - *Hegazkinean* ***bi bikote andaluziar / lau lagun / lau bidaiari andaluziar*** *ezagutu genituen.*

- *Erakusketan Rodinen bi eskultura eta* ***bere maitale Camille Claudelen*** *eskultura bat ikusi ahal izango dira.*
  - *Erakusketan Rodinen bi eskultura eta* ***Camille Claudelen*** *eskultura bat ikusi ahal izango dira.* ***(Bi eskultoreak maitalak izan ziren)***

EMAKUMEEN AIPAMEN ASIMETRIKOAK

"Gizon" edo "Jaun" VS "neska" edo "ponte-izen":

- *Garmendia jaunak eta* ***Estitxuk*** *aurkeztu dute txostena.*
  - *Garmendia jaunak eta* ***Díaz de Alda andreak*** *aurkeztu dute txostena.*

- *Sarkozy eta* ***Angela*** *bildu dira gaur goizean.*
  - *Sarkozy eta* ***Merkel*** *bildu dira gaur goizean.*

- *Bi gizonek eta hiru* ***neskak*** *osatzen zuten taldea.*
  - *Bi gizonek eta hiru* ***emakumek*** *osatzen zuten taldea.*

GENEROA ADITZEAN: HITANOA

- Gizonezkoei *toka* eta emakumezkoei *zuka.*
  "Azterketa egin ezak" VS *"Azterketa egin ezazu"*

- Emakumeekin *noka* egin ordez, *toka* egitea.
  "Azterketa egin ezak" VS *"Azterketa egin ezan"*


- Talde misto edo abstraktu bati hitz egitean, *toka* bakarrik egitea.
  "Aizak ! Etor hadi!" VS *"Aizak! Aizan! Etor hadi!"*


www.hitanoaz.eus

Sexismoa gertatzen den ala ez ikusteko:

INBERTSIO ARAUA:

susmagarria den hitz edo esaldia beste generoari aplikatu.









Zer iruditzen zaizkizu

kasu hauek?

KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENA-I

2019-2020

KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA

Zer esango zenuke ondorengoei buruz?

- *Kamioizale joan da fabrika batera, hustu du zeraman karga, hartu du berria…*
- *Jostuna gaitzerdi batek orpoa erreparatzen ari da…*
- *Agintariak hiritarrei zuzendutako diskurtsoan…*

Horietako bakoitza zein generotakoa irudikatu duzu?

"Jende askok ez du oraindik sinesten gizona ilargira iritsi zela"

"Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia"
Izarren Hautsa, Mikel Laboa

"Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu…"

"Amaia, irekiko al duk leihoa?"

"Agur, jaunak!
Jaunak, agur!
agur t'erdi."

"Epaitegia lege-gizonez beteta zegoen"

"Eskolako maisu guztiak gonbidatuta daude"

"Nire lobak andereño berria dauka aurtengo ikasturtean"

"Behin adin batera iristean, nork ez daki zer den garrantzitsua bizitzan?; ondo moldatzea lau lagunekin, ondo konpontzea emaztearekin, gaizki ez konpontzea lanbidearekin…"

"Ezer ez zen hitzik ari zen euripean. Atorra helduta, poltsikotik gitarra atera zuenean, zakurra bere zapaten gainera igo zen, txakurra. "Esan hor, zakur madarikatua, obeditu!", esan zion zakurrari indartez".

Zein generotakoa irudikatu duzu pertsonaia?

Gabriel García Márquez eta Isabel Allende idazle hegoamerikar sakonenen artean daude. García Márquezen lo obra guztiak dauzkagu etxean. Isabelen azkeneko nobela ez dugu irakurri oraindik…

"Herri guztia elkartu zen herriko plazan ongietorria egiteko. Emakumeak eta umeak etxean geldi ziren".

"Kultura sexistatik mintzaira sexista dator

eta

mintzaira sexistak kulturaren sexismoa iraunarazten du"

Agurtzane Juanena

FIDAGARRITASUNA

ITURRIEN FIDAGARRITASUNA

DOKUMENTUAREN KALITATEA	EDUKIAREN KALITATEA
- Erraz irakurri eta ulertzeko modukoa (lehen begi kolpean formatu egokia du). - Informazioa modu argian egituratuta. - Ortografia zuzena.	- Autorea edo argitaratzen duenak badu errekonozimendua. - Edukia beste iturri batzuekin kontrastatu daiteke. - Informazio objektiboa, iritzirik gabe. - Informazio eguneratua eta osoa.

Iturriak fidagarriak al diren jakiteko beste estrategia batzuk:

- ✓ Kritikoa izan jasotako datuei buruz
- ✓ Webguneen kasuan, iturri zaharrak edo eguneratu gabeak edukitzea ez da seinale ona.

Bilaketak: arazoak eta konponbideak

Sarean bilaketak egiten direnean hainbat arazo sor daitezke, esate baterako hauek:

1. Ez dugu ezer aurkitu edo oso emaitza gutxi aurkitu ditugu.
2. Emaitza gehiegi aurkitu ditugu.
3. Emaitzen zerrendako elementu bat bera ere ez da egokitzen eskatu dugun horretara.
4. Emaitzen zerrendako oso gutxi dira gure interesekoak.
5. Bilaketa oso motela da, emaitzak agertzeko denbora asko igarotzen da.

Hona hemen aipatutako arazoentzako konponbide posible batzuk. Konponbide sorta bakoitza lotu ezazu arazo batekin

ARAZOA	KONPONBIDE POSIBLEA
	a) - Gako-hitza zabalegia da: pentsatu hori fintzeko moduren bat. - Agian bila ari zaren toki hori ez da egokiena aurkitu nahi duzun informazioa aurkitzeko. - Saiatu bilaketa aurreratuen bidez informazioa filtratzen.
	b) - Bilaketa formulatzerakoan espezifikoagoa izan. Gako-hitzak esanahi edo erabilera zabalegia dauka. - Bilatzaileari hitz esanguratsuenak ager daitezen eskatu, agian bilaketa aurreratuen aukerak erabilita. - Zeure buruari galdetu ea leku egokian ari zaren bila.
	c) - Saihestu bilaketak egiteko hitz edo adiera ohikoenak. - Silaba gutxi dauzkaten hitzak erabili (artikuluak, preposizioak…) - Azken aukera moduan, beste bilatzaile bat erabili edo bilaketa beste momentu batean egin; agian bilatzailean datuak eguneratzen ari dira edo gainkarga dauka.
	d) - Agian termino hori beste modu batean indexatuta dago. Errebisatu erabilitako gako-hitzak eta erabili sinonimoak. - Begiratu idatzitako hitz edo gako-hitzen ortografia zuzen dagoen. - Agian emaitza gehiago lor daitezke honakoak eginda: hitza pluraletik singularrera aldatu, hizki guztiak minuskulaz idatzi, hitzak gaztelaniara edo ingelesera itzuli.
	e) - Baliteke terminoa gaizki idatzita egotea edo erabiltzen ari zaren moduan beste esanahi bat edukitzea. - Agian erabilitako gako-hitza ez da egokia eta beste bat erabiltzea komeni da.

ARAZOA	KONPONBIDE POSIBLEA
4	a) – Gako-hitza zabalegia da: pentsatu hori fintzeko moduren bat. – Agian bila ari zaren toki hori ez da egokiena aurkitu nahi duzun informazioa aurkitzeko. – Saiatu bilaketa aurreratuen bidez informazioa filtratzen.
2	b) – Bilaketa formulatzerakoan espezifikoagoa izan. Gako-hitzak esanahi edo erabilera zabalegia dauka. – Bilatzaileari hitz esanguratsuenak ager daitezen eskatu, agian bilaketa aurreratuen aukerak erabilitan – Zeure buruari galdetu ea leku egokian ari zaren bila.
5	c) – Saihestu bilaketak egiteko hitz edo adiera ohikoenak. – Silaba gutxi dauzkaten hitzak erabili (artikuluak, preposizioak…) – Azken aukera moduan, beste bilatzaile bat erabili edo bilaketa beste momentu batean egin; agian bilatzailean datuak eguneratzen ari dira edo gainkarga dauka.
1	d) – Agian termino hori beste modu batean indexatuta dago. Errebisatu erabilitako gako-hitzak eta erabili sinonimoak. – Begiratu idatzitako hitz edo gako-hitzen ortografia zuzen dagoen. – Agian emaitza gehiago lor daitezke honakoak eginda: hitza pluraletik singularrera aldatu, hizki guztiak minuskulaz idatzi, hitzak gaztelaniara edo ingelesera itzuli.
3	e) – Baliteke terminoa gaizki idatzita egotea edo erabiltzen ari zaren moduan beste esanahi bat edukitzea. – Agian erabilitako gako-hitza ez da egokia eta beste bat erabiltzea komeni da.